



EBAZPENA, 2023KO URRIAREN 24KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAZ BEHIN-BEHINEAN EBAZTEN BAITA HIZKUNTZAGATIK EDO EGINKIZUNENGATIK BEREZITURIK DAUDEN LANPOSTUAK BETETZEKO BERARIAZKO LEHIAKETA, PROZESU ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO, PROZESU ETA ADMINISTRAZIO-IZAPIDETZAKO ETA LAGUNTZA JUDIZIALEKO KIDEGOETARAKO, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUAREN 2023KO UZTAILAREN 31EKO EBAZPENEZ DEITUA.

AURREKARIAK

- 1.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko uztailaren 31eko Aginduaren bidez, berariazko lehiaketa baterako deialdia egin zen Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, eginkizunengatik edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko.
- 2.- Eskerak aurkezteko epea bukatuta, eta Balioespen Batzordea bildu ondoren, behin-behineko ebazpena ematen da, bat etorritik deialdiaren 8. artikularekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretua, zeinaren 12. artikulua Justizia Administrazioko Zuzendaritzak Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen arloan dituen eskumenak jasotzen baititu.

Bigarrena.- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2023ko uztailaren 31eko Aginduaren 8. artikulua dioenari jarraikiz, deialdia Justizia Administrazioko zuzendariak ebatziko du behin-behinean.

Hori dela eta,



EBAZTEN DUT

Lehena.- Argitara ematea behin-behineko ebazpena, eginkizunengatik edo hizkuntzagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa baterako deialdiarena, Euskal Autonomia Erkidegoan Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetako eskakizun bereziko lanpostuak betetzeko dena (Deialdia Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez egin zen).

Bigarrena.- Erreklamazioak egiteko hamar egun balioduneko epea irekitzea, argitaratzen direnetik. Erreklamazioak Justizia Administrazioko zuzendariari aurkeztu behar zaizkio, euskadi.eus-en bidez.

Epe horretan uko egin ahal izango zaio behin-behinean esleitutako destinoari eta, beraz, lehiaketan parte hartzeari.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 23an

Jon Arturo Uriarte Unzalu

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA